

# *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*

## Euskal Autonomia Erkidegoa

Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
Nafarroako Gobernua (Euskarabidea)  
Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque

*Donostia, 2016-10-14a*

## VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN BATZORDE ERAGILEA

- **Batzordeburua:** Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
- Mikel Arregi, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea.
- Paula Kasares, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.
- Mathieu Bergé, Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) presidentea.
- Bernadette Soulé, Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) zuzendaria.
- Inkestaren arduradun teknikoa: Jon Aizpurua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Azterlanetako zerbitzuburua.
- Idazkaria: Jorge Giménez Bech, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria.

## VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN EAEko FITXA TEKNIKOA

- Aztertutako unibertsoa Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) 16 urte edo gehiagoko biztanleria izan da.
- Landa-lana SIADECO Koop EM enpresak egin du.
- Datu-bilketa 2016ko apiril eta maiatza bitartean egin da.
- Euskal Herrian guztira 8.200 inkesta: EAEn 4.200, Nafarroan 2.000 eta Iparraldean 2.000.
- EAEko lagin osoaren akats-tartea  $\pm$  % 1,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta  $p=q=$ % 50. Konfiantza maila bererako lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: Araban  $\pm$  % 4koa, Bizkaian  $\pm$  % 2,8koa eta Gipuzkoan  $\pm$  % 3koa.


## AURKIBIDEA:

1. Hizkuntza gaitasuna.....	4
2. Hizkuntzaren transmisioa.....	12
3. Erabilera.....	20
4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.....	26
5. Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioa .....	28

## 1. HIZKUNTZA GAITASUNA

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016n EAEn bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 33,9 euskalduna da, % 19,1 euskaldun hartzailea eta % 47 erdaldun elebakarra.


Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hiru lurraldeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia euskalduna da (% 50,6). Bizkaian, ordea, biztanleriaren laurdena pasatxo da euskalduna (% 27,6). Azkenik, Arabako biztanleriaren bostena da euskalduna (% 19,2).

## Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Aurreko inkestan bezala, oraingoa ere hiriburuetako datuak emango dira. Aipatzekoa da hiru hiriburuak euren lurraldeek baino euskaldunen ehuneko txikiagoa dutela. Horrela, Donostian euskaldunak % 35,4 dira, Bilbon % 18,6 eta Gasteizen % 17,9.


## Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)

	Vitoria-Gasteiz	Bilbao	Donostia-San Sebastián
Guztira	206.334	300.283	160.826
Euskaldunak	17,9	18,6	35,4
Euskaldun hartzaileak	18,4	21,1	21,5
Erdaldun elebakarrak	63,8	60,3	43,1

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun, 2016an 1991n baino 212.000 euskaldun gehiago daude EAEn. Ia 10 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (% 24,1 versus % 33,9).

Euskaldunen bilakaera EAE, 1991-2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Euskaldun hartzaileek ere ia 11 puntuko hazkundea izan dute 25 urte hauetan (% 8,5 versus % 19,2).


Erdaldun elebkarrek, aldiz, 12 puntuko jaitsiera izan dute (% 59,2 ziren 1991n eta % 47 dira 2016an).

Erdaldun elebkarren beherakada eta euskaldunen hazkundea are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Euskaldunek EAEko hiru lurraldeetan egin dute gora, baina Arabaren hazkundera aipatzekoa da. Horrela, 1991n Araban euskaldunak % 7 ziren eta gaur egun, ostera, % 19,2.

Lurraldeetako datuak alde batera utzi eta euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan. Hala ere, euskaldunen hazkundera 65 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Gertakari hori, gainera, ez da berria, halaxe gertatu izan baita azken 25 urteotan, baina agerikoagoa da gazteen artean. Horrela, gaur egun 16 eta 24 urte bitartekoen % 71,4 euskaldunak dira gaur egun; 1991n, aldiz, % 25 ziren.

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE. 1991-2016 (%)



Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala, multzo hori euskaldunak irabazten ari da azpitik eta erdaldun elebakarrak galtzen goitik. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, nagusien multzoan (duela 25 urtera arte euskaldunen ehunekorik handiena zuen) haziz doa erdaldun elebakarren ehunekoa.



Adinaren arabera joera hori hiru lurraldeetan gertatu da, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoak oso bestelakoak izan.


Arabian eta Bizkaian adinaren arabera bilakaerari dagokionez, orain dela 25 urte aurreikusten zen joera areagotu egin da. Hau da, gazteen euskalduntzea agerikoa da eta erdaldun elebazarren ehunekoaren jaitsiera orokorra. 16-24 urte bitarteko artean hamarretik sei baino gehiago euskaldunak dira (% 60,1 Arabian eta % 66,8 Bizkaian).

Gipuzkoan are handiagoa da euskaldunen ehunekoa adinaren arabera. Gipuzkoako 16-24 urte bitarteko gazteen hamarretik zortzi baino gehiago euskaldunak dira (% 83,2) eta baita 25-34 urte bitarteko gazteen bi heren (% 66,5). Azkenik, 35 urte edo gehiagoko artean hamarretik lau baino gehiago dira euskaldunak.

## **Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko**

EAEen 16 urte edo gehiagoko euskaldunen % 26,8k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira. Euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek dute (% 44,8), eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (% 20,2). Gipuzkoan dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (% 35,9) eta Arabian txikiena (% 6,7). Era berean, Bizkaiko euskaldunen % 20,4 da euskal elebiduna.


Euskaldunak erraztasunaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Elebidun orekatuak, aldiz, erraztasun bera du euskaraz zein erdaraz egiteko eta euskaldunen % 29,3 dira. Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 25 eta 64 urte bitartekoen artean dago (% 30 baino gehiago). Gipuzkoak du elebidun orekatuen ehunekorik handiena (% 34,3) eta Bizkaiak eta Arabak nahiko antzekoa (% 24,9 eta % 22,6 hurrenez hurren).


Euskaldunen erraztasuna, lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta % 44 dira. Euskaldunen multzorik handiena da, ehunekoa handiagoa izanik adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago erdal elebiduna da (% 55,7). Lurraldeei dagokienez, Arabako euskaldunen % 70,8 erdal elebiduna da, Bizkaian % 54,7 eta Gipuzkoan % 29,8.


Euskaldunen erraztasuna, adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela 25 urte euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoa nahiko antzekoa zen (% 34,6 versus % 37,8). Gaur egun, ordea, erdal elebidunen ehunekoa 17 puntu handiagoa da euskal elebidunena baino (% 26,8 versus % 44).

Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)


## 2. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

### Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, EAeko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 17,5ek euskara soilik jaso du etxean eta % 6k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Era berean, lautik hiruk (% 76,4), erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, errusiera eta abar direla.

Lehen hizkuntza. EAE, 2016 (%)



*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)*

Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira EAeko lurralde eta adin-talde guztietan, baina alde handiak daude batetik bestera.

Lehen hizkuntza erdara dutenak hiru lurraldeetan nagusi badira ere, Gipuzkoak du ehunekorik txikiena lehen hizkuntza erdara dutenen artean (% 59,2). Gainerako bi lurraldeetan nagusitasun osoa du erdarak. Horrela, erdara da Bizkaiko eta Arabako gehiengo handiaren lehen hizkuntza (% 82,4 eta % 93 hurrenez hurren).

**Lehen hizkuntza, lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)**


	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	1.864.380	273.086	986.155	605.139
Euskara	17,5	3,8	11,9	32,9
Euskara eta erdara	6	3,2	5,7	7,9
Erdara	76,4	93	82,4	59,2

*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)*

Adinari erreparatuz, gaur egun 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik altuena (% 22). Ehuneko horrek behera egiten du adinean gora egin ahala (% 15--% 17 artekoa), 65 urte edo gehiagokoan adin-taldera iritsi arte. Izan ere, 65 urte edo gehiagokoan adin-taldean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak gora egiten du (% 20,5).

Duela 25 urte, alderantziz gertatzen zen. Horrela, 1991n lehen hizkuntza gisa, euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoan zuten (% 32,4) eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala. Gazteenek zuten ehunekorik txikiena (% 17). Gaur egun, ordea, 16-24 urte bitartekoek dute ehunekorik handiena. Horrela, gazteen artean 5 puntuko hazkundera izan du etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak (% 17 versus % 22).

Halaber, euskara eta gaztelania batera jaso zutenen ehunekoa txikiagoa zen oro har, gaur egun baino (% 2,6 versus % 6). Adinari erreparatuz eta alderaketa eginez, gazteenen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 25 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen % 3,4k jaso zuen euskara eta erdara batera lehen hizkuntza gisa; gaur egun, ordea, adin horretako gazteen % 11,1ek jaso du, hau da, ia 7 puntuko aldea.



## Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera


EAEko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko da orain.

Euskaldunen erdiak euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira (% 50). Euskaldunen % 13,2k, ordea, euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, herenak baino gehiagok erdara jaso du etxean eta euskaldun berriak dira (% 36,8). Azken hauek etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian. Azpimarratzekoa da euskaldunen artean multzo hori pisu handia hartzen ari dela.

Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan. 1991n euskaldun gehienak (% 79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, euskara etxean jaso

zuten. Euskaldun zaharrak, gainera, nagusi ziren adin-talde guztietan. 2016an, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, jatorrizko elebidunek pisu handia hartu dute eta are handiagoa euskaldun berriek, batez ere 35 urtetik beherakoen artean.

Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.  
EAE, 1991-2016 (%)




*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)*

Gaur egun, 50 urtetik beherako euskaldunen ia erdia euskaldun berria da. 1991n, ordea, adin tarte horretako euskaldunen %15 besterik ez ziren euskaldun berriak.



## Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera EAE, 2016 (%)



### Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Gurasoak biak euskaldunak izanik, seme-alaben % 83,3k euskara soilik jaso du etxean EAEn, % 6,7k euskara eta erdara eta % 10ek ez du euskararik jaso.


Gurasoetako bat baino ez izanik euskalduna, % 55,3k erdara soilik transmititu du eta % 44,7k euskara eta gaztelania.

Aipatzekoa da guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa dela adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik handiena 16-34 urte bitarteko inkestatuek dute. Adin horretako gazteen % 90,3k euskara soilik jaso du etxean eta % 5,2k euskara eta erdara.

Era berean, 35-50 urtera bitartean dituztenen artean, guraso biak euskaldunak izanik, % 86,6k euskara soilik jaso du eta % 5,8k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiago dituztenen artean euskararen transmisioa txikiagoa da: % 79,2k euskara soilik jaso dute eta % 7,6k euskara eta erdara.

Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera EAE, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 50 urte baino gutxiagokoen erdiak baino gehiagok euskara jaso du etxean erdararekin batera: 16-34 urte bitartekoen % 61,7k eta 35-49 urte bitartekoen % 53,2k.

Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean adinaren arabera.EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

### 3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa

3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei. Transmisio hori aztertzeko gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta euren lehen hizkuntza izan dira kontuan.

#### Guraso biak euskaldunak direnean

Gurasoak biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 94k euskara soilik jaso du etxean eta % 6k euskara eta erdara.

Gurasoak biak euskaldunak direnean eta bietako baten lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 71k euskara soilik jaso du etxean, % 24k euskara eta erdara eta %5ek erdara.

Gurasoak biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben % 45ek euskara soilik jaso du etxean, % 35ek euskara eta erdara eta % 19k erdara.

### **Gurasoetako bat denean euskalduna**

Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza euskara denean, % 89k euskara eta erdara transmititu ditu eta % 11k erdara.

Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza erdara denean, % 49k euskara eta erdara transmititu ditu eta % 51k erdara.


### 3. EUSKARAREN ERABILERA

EAEan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 30,6k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a) % 20,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b) Aldi berean, % 10,1ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (% 69,4) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (% 6,1) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.


Euskararen erabileraren tipologia. EAE, 2016 (%)



*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)*

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 39,5 dira Gipuzkoan, % 13 Bizkaian eta % 5,6 Araban. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 10,9 dira Gipuzkoan, % 10 Bizkaian eta % 8,9 Araban.

### Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera EAE, 1991-2016 (%)




*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

Lurraldeen artean dauden alde horiek oso nabarmenak dira gune soziolinguistikoen artean ere. Euskararen erabilera trinkoa % 3,9koa da lehenengo gune soziolinguistikoa eta % 19,1ekoa bigarrenean. Hirugarren gune soziolinguistikoa, aldiz, % 52,4k erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago eta laugarrenean % 78,6k.

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak 5 puntu egin du gora EAEn. Igoera hori hiru lurraldeetan eta lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan gertatu da. Laugarren gune soziolinguistikoa, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (9,7 puntu 1991tik hona). Beherakada hori azken ia bi hamarkadetan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki. Gune erdaldunetan, mugimendu horiek euskararen mesederako izan badira ere, gune euskaldunetan euskararen kalterako izan dira oro har, bertara bizitzera joan diren pertsonen euskararen ezagutza bertan bizi edota bertatik atera direnena baino apalagoa baita gehienetan.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hala ere, laugarren gune soziolinguistikoan bizi diren euskaldunak bakarrik kontuan hartzen baditugu, euskararen erabilera gutxi aldatu da azken 25 urteotan: euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak % 97,4 ziren 1991n, eta % 95,3 dira 2016an (-2,1 puntu); eta euskara erdara baino gutxiago erabiltzen zutenak % 2,1 ziren 1991n eta % 4,1 dira 2016an (+2 puntu).

Oro har euskarak erabilera-eremu guztietan egin du gora: etxean, eremu hurbilean eta eremu formalean. Azken 25 urteotan gorakadarik handiena eremu formalean gertatu da, bereziki udal eta osasun zerbitzuetan. 2016an, EAEko biztanleen % 25,8k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du udal zerbitzuetan eta % 20k osasun-zerbitzuetan (1991n, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak bi eremu horietan % 8,3 eta % 13,9 ziren, hurrenez hurren).

Eremu hurbil eta formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak EAE, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Eremu formaletik kanpo, aipatzekoa da azken bost urteotan etxean euskararen erabilerak izan duen gorakada. 2011ra arte etxeke erabilerak oso igoera apala izan du (20 urtetan ia-ia bere horretan mantendu da portzentajea, % 17). 2016an, aldiz, etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 19 dira, hau da, 2011n baino 1,8 puntu gehiago. Igoera horren arrazoia etxeke kide guztien artean euskararen erabilerak izan duen gorakadan dago. Igoera hori bereziki azpimarragarria da bikotekideen arteko erabileran: % 14,9 (hau da, 0,8 puntu azken bost urteotan). 2016an, seme-alabekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 22,9 dira (1991n % 18,1), neba-arrebekin % 20,2 (1991n % 15,6), aitarekin % 17,6 (1991n % 9,4) eta amarekin %16,7 (1991n % 12).



Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak  
EAE, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gero eta txikiagoa da 65 urtetik gorakoen artean eta gero eta handiagoa adin horretatik beherakoen artean. Hazkundera, gainera, handiagoa da adinak behera egin ahala. 2016an, 65 urtetik gorakoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 17,5 dira (1991n % 25,3), 50 eta 64 urtekoen artean % 17,5 (1991n % 16,6), 35 eta 49 urtekoen artean % 20,1 (% 13,3 zen 1991n), 25 eta 34 urtekoen artean % 26,6 (1991n % 14,2) eta 16 eta 24 urtekoen artean % 29,5 (1991n % 12,4).

Beti erdara erabiltzen dutenek nagusi izaten jarraitzen dute adin-talde guztietan, 25 urtetik beherakoen artean izan ezik (16 eta 24 urtekoen artean beti erdaraz aritzen direnak % 35,8 dira).

Adinaren arabera jokoera horiek oro har errepikatu egiten dira EAEko hiru lurraldeetan. Gipuzkoan, gainera, azpimarratzekoa da 25 urtetik beherako gazteen artean ez izan (% 54,7), 25 eta 34 urtekoen artean ere (% 52,1) erdia baino gehiago direla dagoeneko euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak eguneroko jardunean.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE. 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)

Beraz, orain arteko emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke EAEn gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak. Hau da, ahozko euskararen presentzia gero eta handiagoa da bai familiaren esparruan, bai eremu hurbiletan, baita eremu formaletan ere.

Inkestatuen % 72k Interneteko gizarte-sareak erabiltzen ditu, gehienek (% 61,7) egunero. Erabiltzaileen adinari dagokionez, 65 urtetik beherako adin-talde guztietan nagusi dira gizarte-sareak egunero erabiltzen dituztenak, eta zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen dituzte (% 56,3 dira 50 eta 64 urtekoen artean, eta 16 eta 24 urtekoen artean % 95,2).

Interneteko gizarte-sareetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, baita gazteen artean ere. Hala ere, erabiltzaileen % 17,4k maiztasun handiz erabiltzen du euskara (euskararen erabilera % 50ekoa edo hortik gorakoa denean). Gazteen artean (16-24 urte), euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak % 29,5 dira. Gaztelaniaz eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetan ere badihardute Interneten, nagusiki ingelesez (% 2,9).

#### **4. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA**

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, EAeko 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Inkesta Soziolinguistikoko honen arabera, EAeko 16 urtetik gorako biztanleen % 65 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 25,8 ez alde ez aurka eta % 9,3 aurka.


Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 87,1, euskaldun hartzaileen % 63,4 eta erdaldun elebakarren % 49,7.

Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da Gipuzkoan (% 74,6), Bizkaian (% 62,2) eta Araban (% 53,4) baino.

Hiriburuei dagokionez, Donostiako biztanleriaren % 60,7 euskara sustatzearen alde dago, Bilboko biztanleriaren % 53,8 eta Gasteizkoaren % 50,6. Aurka dauden artean, ehunekorik altuena Bilbok eta Gasteizek dute (% 15,7 eta % 14,3 hurrenez hurren), eta aurkako jarrerarik txikiena Donostiak (% 8,8).

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldekoenak gazteenak eta nagusienak dira, % 69,4 baitira 16-24 urte bitartekoen artean % 67,8 dira 25-34 urte bitartekoen artean eta % 67, ordea, 65 urte edo gehiago dituztenen artean.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.  
EAE, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (%)


Euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 25 urteotan. Izan ere, 1991n % 55 zegoen euskara sustatzearen alde, %31 ez alde ez aurka eta % 14 aurka. 2001ean, ostera, EAEko biztanleriaren % 58 zegoen euskara sustatzearen alde eta % 10 aurka.

1991ko eta 2016ko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 10 puntuko igoera izan du (% 55 versus % 65). 2016an gutxiago dira ez alde ez aurka agertzen direnak (% 31 versus % 25,8), eta gutxitu egin da aurka dudenaren ehunekoa (% 14 versus % 9,3).

## 5. EUSKO JAURLARITZA EUSKARAREN ARLOAN EGITEN ARI DEN LANARI BURUZKO BALORAZIOA

EAEko 16 urte edo gehiagoko herritarren % 61,9ari egokia iruditzen zaio Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lana, % 19,5i desegokia, % 1,5i berdina zaio eta gainerako % 17ak ez daki edo ez du erantzun.


Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioaren bilakaera. EAE, 2011-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Lurraldeka, aldeak txikiak dira. Bizkaian eta Gipuzkoan egoki irizten diotenak % 63,4 eta % 62,9 dira, hurrenez hurren. Araban portzentajea zertxobait txikiagoa da (% 54,6). Desegokia dela uste dutenekin alderantziz gertatzen da: Araban (% 23,8), Bizkaian (% 19,7) eta Gipuzkoan (% 17,2) baino zertxobait handiagoa da ehunekoak.


Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioa, lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoen artean dago egoki irizten diotenen ehunekorik handiena (% 65,6). Gainerako adin-talde guztietan % 60 inguru dira egokia dela uste dutenak (adin-talde batetik bestera dagoen aldea 2 puntukoa baino txikiagoa da).

Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioa, adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hizkuntza-gaitasunaren arabera ere aldeak txikiak dira. Egoki irizten diote euskaldunen % 62,4k, euskaldun hartzaileen %56,9k eta erdaldun elebakarren % 63,6k. Eta desegokia euskaldunen % 19,8k, euskaldun hartzaileen % 26,4k eta erdaldun elebakarren % 16,5ek.


Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanaren balorazioaren bilakaera, hizkuntza-gaitasunaren arabera.  
EAE, 2011-2016 (%)

	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
<b>2011</b>			
Egokia	40,9	48,1	53,7
Desegokia	44,7	35,4	27,9
Berdin zait	1,7	2,9	2,7
Ed/Ee	12,6	13,6	15,7
<b>2016</b>			
Egokia	62,4	56,9	63,6
Desegokia	19,8	26,4	16,5
Berdin zait	0,8	0,7	2,4
Ed/Ee	16,9	15,9	17,5

Azken 15 urteotan, ia 3 puntu egin du gora euskara sustatzeko Eusko Jaurlaritza egiten ari den lana egoki irizten diotenen ehunekoak. 2001ean, % 59 ziren egokia irizten ziotenak, eta gaur egun, esan bezala, % 61,9.

Baloraziak gorabehera txikiak izan ditu azken 15 urteotan, 2011n izan ezik. 2006tik 2011ra bitartean, egoki baloratzen zutenen ehunekoak 11,7 puntu egin zuen behera. Baina azken 5 urteotan, 13,3 puntu egin du gora egoki irizten diotenen ehunekoak eta 15,5 behera desegokia irizten diotenenak.

Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioaren bilakaera. EAE, 2001-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016